

espazioa

AURKIBIDEA

- 1 Kontzeptuak
- 2 Urratsak
- 3 Aktibitateak

- 4 Ebaluaketa
- 5 Jakintasunak eta hizkuntza edukiak

1 KONTZEPTUAK

Haurrak bere baitarik, hurbiletik sendi ditzakeen espazio markak, programetan "espazio ezagun" deritzaien nozioetan agertzen dira. Ezker-eskuin, gora-behera, aitzin-gibel oinarritzko kontzeptuak dira hastapenetik landu behar direnak. Lehenik, beharrezkoa da lehen zikloko jakintasunen berrikustea eta ongi finkatzea.

Ondotik eskolaren gela barneko eta berdin gelaz kanpoko espazio markak ezagutu behar ditu haurrak. Geroago espazio kontzeptu abstraktuetan sartuko da aiseago.

2 URRATSAK

Lehenik, espazio nozioak (ezker-eskuin, goiti-beheiti...) egun guzietako iharduerak eginez menperatzen dira, abididez, egun guzietako motrizitate joko edo gorputz heziketan.

Saretari (bi sarbideko taulak, adibidez) emanen zaio garrantzia, haurra usa dadin irudikapen mota horrekin. Ondotik, gelako espazioa eta ikastetxekoa baliatuko dira maketen eta planen ulertzeko errealitatetik abiatuz.

3 AKTIBITATEAK

**EZKER-ESKUIN ETA SIMETRIAREN LANTZEKO**  ikaslearen 1. eta 2. fitxak


■ Oharra : Irakasleak, lehen fitxa den bezala erabil dezake edo, zailtasun gehiagorekin eman, "da" / "dira" aditz laguntzaile markak ezabatuz.

▼ Ezker-eskuin kontzeptuak pratikan erabili ondotik, irudikapen grafikoa erabil daiteke ariketa batzuen bidez.



▼ kolorezko gometak

Bi gometa itsas haur bakoitzaren mahai gainean.



Kodigo bera erabil ikasgelako gauzetan : idaztaulan, kailerrean, liburuetan...

Egun guziz, haurrek kodigo hori marraztu behar dute beren esku gainean (puntu bat feutrak). Ondotik egoki da heldu den urraspideari jarraitzea :

- Kodigo hori erabiltzen dute formula honen bidez : "esku berdea"/"esku gorria"
- Kodigo hori erabiltzen dute formula honen bidez : "ezkerra edo berdea"/"eskuina edo gorria"
- Kodigo hori erabiltzen dute formula honen bidez : "ezkerra"/"eskuina"

























Lan honek hiru hilabete iraun dezake.

● **BESTE IRUDIKAPEN BATZUK**  ikaslearen 3. fitxa


▼ Talde jokoan erabilpena

Bi sarbideko taulak balia, adibidez : alde batetik koloreak eta bestetik formak.

▼ Eskuineko ereduari jarraikiz, sareta berdinak osa biñeta bakoitza bere kokagunean emanaz.


					
					
					
					


▼ Bi sarbideko taulen irakurtzen treba. Gauzak pareka. Itsas guduak antola, adibidez.



Ariketa hauek talde jokoak izan daitezke : talde batek manuak emaiten dizkio besteari, adibidez : "Ttanttoa bi lauki-txoz eskuinera pusa ezazue".





▼ Labirintuak




● TAULA BAT IRUDIKATZEN ETA ERAIKITZEN  ikaslearen 4. fitxa

Gogoeta edo matematika problema batetik abiatuz haurrak ikasten du taula baten irudikatzen eta eraikitzen.

Merkatutik hamar baloi gorri, hiru berde, lau liburu berde eta gorri bat ekarri ditugu. Hasi dugun taula osa.


		
		
		

Arauk atzemaiten : orain taula bukatua emaiten dizugu ; atzeman behar dituzu taula horren betetzeko erabili ditugun arauak.



**HAURRA IKASGELAKO ESPAZIOAN IBILKI**

▼ Haurren jargiak abiapundu ikaslearen 5. eta 6. fitxak




Hona hemen marrazkian diren ikasleen irudikapena planoan :

<b>Lili</b>	<b>Iker</b>
<b>Pettan</b>	<b>Mattin</b>
<b>Oihana</b>	<b>Ainara</b>
<b>Ugutx</b>	<b>Haize</b>

<b>Xanti</b>	<b>Maitena</b>
<b>Eztitxu</b>	<b>Peio</b>
<b>Argitxu</b>	


Planoaren eta marrazkiaren arteko konparaketak egin.

▼ Gelako maketa egin elementu kubikoak edo "legoak" erabiliz.



▼ Etxeko planoak

- Hurrei ekarraraz beren etxe barneko planoak eta dokumentuen irakurtzen ikas elgarrekin.
- Ikasgelako irudikapena taldeka eginaraz, muble eta beste materialaren eskemak eginez eta ondotik erkaketak egin denen artean.
- Planoa egiterakoan, leiendan erabiliak diren zenbait ikur eta zeinu ezagutaraz.



atea




leihoa

▼ Ikasgelako planoak ormirudian :


- Elgarrekin edo multzoka ikasgelako planoak egin.
- Ormirudi bat eraik plano kodeak konduhan hartuz, bederen zenbait ikurrekin.
- Egin den lanaz mintza.
- Planoaren arabera kokatzen ikasteko jokoak asma : planotik abiatuz, gauzak edo jendeak leku batetik bestera mugiaraz ikasgela barnean.

▼ Zein da gure ikasgela ?


Irakasleak honelako bizpahiru etsenplu eman behar ditu, horietarik bat zuzen egina. Ikasleek asmatu behar dute zein den.





zuzena




okerra

▼ Ikasgelako planoak koordenaden bidez  ikaslearen 7. fitxa



Gelaren espazioa koordenatan eman (gaineko eskeman bezala). Haurrek, joko batzuen bidez gauzak eta altzariak (mubleak) ezagutu behar dituzte. Adibidez, altxorra ikasgelan gorde eta planoan non den erakuts. Jokoa bi talderen artean eraman daiteke.




**HAURRA IKASTETXEKO ESPAZIOAN**  ikaslearen 8. fitxa

▼ **Ikastetxea planoan eman**

Haurrek, ikasgelaren plana ikertu ondotik, ikastetxearena iker dezakete. Lehenik taldeka galdegiten zaie ikastetxeko zoko guzien gogoan hartzea eta gero, eskema baten egitea. Ondotik, taldeen arteko oharrak kondutan hartuz, ormirudi bat egin daiteke eskala eta plano kodeak - hein batean - baliatuz.

▼ **Planoa koordenaden bidez egin**



▼ **Kanpoko lana :**

Ikastetxeko plano koordenaden bidez egin, markak kanpoan ezarriz igeltoarekin : bakarrik A, B, C... hizkiak eta 1,2, 3, zifrak.

Gauzen eta pertsonen ezagutzeko jokoak egin. "Altxorra bila dezagun plano erabiliz", jokoak egin koordenaden bidez. Adibidez : "Goazen altxorraren bila B5 lekura."


**HERRI BARNEA/AUZUNEA**

▼ **Haurra auzunearen edo herri barnearen ezagutzen.**

Ikasleek bizi duten ingurunea nolakoa den ongi beregana dezaten, espazio horretan ibiliko dira bazterrei ongi behatuz, ondotik gogoan atxik dezaten. Urrats hauek etxez-etxe, karrikaz-karrika, monumentu eta areto publikoen inguruan ibiliz gauzatuko dira.



▼ Maketen irudikapena. Elementu kubikoak manipulatzten.



Ikasleek, zurezko elementu kubikoak erabiliz, maketazio irudikapena ikasgelaren erdian egingen dute.

▼ Maketaziotik planora

Haurrek, beren auzunearen edo herri barnearen planoaren egiten saiatu behar dute, lehenik taldeka eta gero, denon artean.

▼ Herri barne edo auzunearen planoen ikertzen ikasi.  ikaslearen 9. fitxa

Eraikin publikoen kokatzen ikas eta koordinadak erabil.




- Herri barnean ibil eta ikasleek hartu bideak planoan erakuts.
- Beste zentzuan : ibilaldia agert planoan eta gero ibilaldi hori bera egin planoak lagundurik.


● ARGAZKIETATIK PLANORA : SAN LEON OSPITALEA  ikaslearen 10. 11. eta 12. fitxak

▼ Argazkien azterketa. Ikasle guziek, elgarrekin edo multzoka, argazkien azterketa egingen dute. Ospitalearen atal guziak ongi identifika  ikaslearen 10. fitxa

▼ Maketa aztertu eta, eraikinak koka  ikaslearen 11. fitxa



▼ Planoa eman haur bakoitzari, ariketa egin dezan  ikaslearen 12. fitxa



 PLANOAREN IRAKURTZEN IKAS  ikaslearen 13. fitxa

▼ Hiruzpalau toki ezagun koka koordinaden bidez.

